Bestelako Xedapenak

JUSTIZIA ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

583

AGINDUA, 2009ko azaroaren 20koa, Justizia eta Herri Administrazioko sailburuarena, Donostiako «Fundación Oceanográfica de Gipuzkoa / Gipuzkoako Ozeanografika Fundazioaren» estatutuen aldaketa onartu eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko dena.

Fundación Oceanográfica de Gipuzkoa / Gipuzkoako Ozeanografia Fundazioa Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko eskatuz aurkeztutako espedientea ikusi eta aztertu da.

AURREKARIAK

Lehenengoa.– Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailean eskabidea aurkeztu zuen –2005eko martxoaren 14an– Amagoia Mirasolain andreak, «Fundación Oceanográfica de Gipuzkoa / Gipuzkoako Ozeanografia Fundazioaren» izenean hain zuzen ere, non eskatzen baitzen Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan fundazio haren estatutuen aldaketa inskribatzeko.

2005eko urtarrilaren 11n, Donostiako Benito Corvo Román notarioaren (protokolo-zenbakia: 31) aurrean, Vicente Zaragüeta Laffitte eta José Luis Velaz Negueruela-k emandako eskritura publikoaren kopia aurkezten da, eskabidearekin batera. Eskritura horretan, Patronatuko lehendakari Vicente Zaragüeta Laffitte jaunaren oniritzia zuela, Patronatuko idazkari Luis Velaz Negueruela jaunak 2004ko abenduaren 15ean egindako egiaztagiria jaso zen. Egiaztagiria, bestalde, fundazioko estatutuetako 38. artikulua aldatzeko, 2004ko azaroaren 18an egindako bileraren aktarena da.

Bigarrena.– Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroko arduradunak, 2005eko maiatzaren 24an emandako idazkiaren bidez, interesdunei eskatu zien bidalitako dokumentazioan antzemandako zenbait akats zuzen zezaten, hilabeteko epean, hartara Erregistroan inskripzioa gauzatu ahal izateko.

2005eko uztailaren 4an, Donostiako Benito Corvo Román notarioaren (protokolo-zenbakia: 1753) aurrean, Vicente Zaragüeta Laffitte eta José Luis Velaz Negueruela-k emandako eskritura publikoaren baimendun kopia bi aurkezten ditu, aipatu errekerimenduari erantzuteko

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA

583

ORDEN de 20 de noviembre de 2009 de la Consejera de Justicia y Administración Pública, por la que se aprueba e inscribe la modificación de los estatutos de la «Fundación Oceanográfica de Gipuzkoa / Gipuzkoako Ozeanografika Fundazioa» de Donostia-San Sebastián (Gipuzkoa).

Visto y examinado el expediente en el que se solicita la inscripción en el Registro de Fundaciones del País Vasco de la modificación de los Estatutos de la «Fundación Oceanográfica de Gipuzkoa / Gipuzkoako Ozeanografika Fundazioa»

ANTECEDENTES DE HECHO

Primero.– El 14 de marzo de 2005 ha tenido entrada en el Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social solicitud suscrita por Dña. Amagoia Mirasolain, en nombre y representación de la «Fundación Oceanográfica de Gipuzkoa / Gipuzkoako Ozeanografia Fundazioa», de inscripción de el Registro de Fundaciones del País Vasco de la modificación de los Estatutos fundacionales.

A la solicitud se adjunta doble copia autorizada de la Escritura pública otorgada el 11 de enero de 2005 por D. Vicente Zaragüeta Laffitte y D. José Luis Velaz Negueruela, ante el Notario de Donostia-San Sebastián, D. Benito Corvo Román, número 31 de su protocolo. La Escritura pública incorpora certificación expedida en Donostia-San Sebastián el 15 de diciembre de 2004, por D. José Luis Velaz Negueruela, Secretario del Patronato, con el visto bueno de su Presidente, D. Vicente Zaragüeta Laffitte, del acta de la reunión celebrada el 18 de noviembre de 2004, en la que se adoptó el acuerdo de modificar el artículo 38 de los Estatutos fundacionales.

Segundo.– Mediante escrito de fecha 24 de mayo de 2005, la Encargada del Registro de Fundaciones del País Vasco requiere de los interesados la subsanación de defectos observados en la documentación remitida, para que ésta pueda ser objeto de inscripción en el Registro de Fundaciones del País Vasco, otorgando el plazo de un mes a tal efecto.

En contestación al citado requerimiento presentan doble copia autorizada de la Escritura Pública de complemento y subsanación de otras otorgada el 4 de julio de 2005 por D. Vicente Zaragüeta Laffitte y D. Jose Luis Velaz Negueruela ante el notario de Donostia-San Sebastián D. Benito Corvo Román, n.º 1753 de su protocolo.

Hirugarrena.– Espedientea Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistro, Aholkularitza eta Kontrol Unitateko Zerbitzu Teknikoek aztertu dute eta, ondoren, ebazpen-proposamena egin dute.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.– Justizia eta Herri Administrazioko sailburuari dagokio fundazioaren estatutuen aldaketa inskribatzeko espedientea agindu bidez ebaztea. Hala ezarrita dago: Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Legeko 40. artikuluan; Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren 3. artikuluan; eta, Lehendakariak 2009ko maiatzaren 8an Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatzeko eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzeko eman zuen 4/2009 Dekretuaren 9.1.e) artikuluan.

Bigarrena.– Estatutuen aldaketa onartzeko eta aldaketa hori Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko espedienteari funtsezko iritzitako datu eta agiriak erantsi zaizkio, eta bereziki, hauek: Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legearen 31. artikuluan eskatutakoak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamenduaren 44. artikuluan eskatutakoak. Azken erregelamendu hori ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren bidez onartu zen.

Hirugarrena.– Fundazioen estatutuetako aldaketak inskribatzeko oro har eskatutako baldintzez gain, gai horretaz Fundazioko estatutuetan berariaz jasotzen diren arauak betetzen dira.

Lege eta arau hauek ikusi dira: Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legea; Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babeslaritzaren Erregelamendua onartu zuen ekainaren 19ko 100/2007 Dekretua; Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartu zuen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretua.

Justizia eta Herri Administrazioko sailburuak,

EBATZI DU:

Lehenengoa.– «Fundación Oceanográfica de Gipuzkoa / Gipuzkoako Ozeanografika Fundazioaren» estatutuetako 38. artikuluan egindako aldaketa onartzea.

Bigarrena.– 2005eko urtarrilaren 11n, Donostiako Benito Corvo Román notarioaren (protokolozenbakia: 31) aurrean, Vicente Zaragüeta Laffitte eta José Luis Velaz Negueruela-k emandako eskritura

Tercero.– El expediente ha sido examinado por los Servicios Técnicos de la Unidad de Registro, Asesoramiento y Control de Fundaciones del País Vasco que, a su vista, han elevado Propuesta de Resolución.

FUNDAMENTOS JURÍDICOS

Primero.– Corresponde a la Consejera de Justicia y Administración Pública dictar, mediante Orden, la resolución del expediente de inscripción de modificación estatutaria, en virtud del artículos 40 de la Ley de Fundaciones del País Vasco, el artículo 3 del Decreto 101/2007, de 19 de junio, por el que se aprueba el Reglamento del Registro de Fundaciones del País Vasco y el artículo 9.1.e) del Decreto 4/2009, de 8 de mayo, del Lehendakari, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos.

Segundo.– Al presente expediente de aprobación de modificación estatutaria y ulterior inscripción en el Registro de Fundaciones del País Vasco se han aportado cuantos datos y documentos se consideran esenciales, cumpliéndose especialmente los requisitos previstos en el artículo 31 de la Ley 12/1994, de 17 de junio, de Fundaciones del País Vasco, así como en el artículo 44 del Reglamento del Registro de Fundaciones del País Vasco, aprobado por el Decreto 101/2007, de 19 de junio.

Tercero.– Además de los requisitos exigidos con carácter general para la inscripción de las modificaciones de estatutos de las Fundaciones, se cumplen las reglas que, con carácter particular, recogen los Estatutos de la Fundación al respecto.

Vistos la Ley 12/1994, de 17 de junio, de Fundaciones del País Vasco, el Decreto 100/2007, de 19 de junio, por el que se aprueba el Reglamento del Protectorado de Fundaciones del País Vasco, el Decreto 101/2007, de 19 de junio, por el que se aprueba el Reglamento del Registro de Fundaciones del País Vasco, y demás normas de general y pertinente aplicación.

La Consejera de Justicia y Administración Pública resuelve,

RESUELVE:

Primero.– Aprobar la modificación del artículo 38 de los Estatutos de la «Fundación Oceanográfica de Gipuzkoa / Gipuzkoako Ozeanografika Fundazioa».

Segundo.– Ordenar la inscripción de dicha modificación estatutaria de la Fundación, con la fecha de la presente Orden, de acuerdo con lo establecido en la Escritura pública otorgada el 11 de enero de 2005

publikoarekin bat etorriaz, Fundazioaren estatutuen aipatu aldaketa inskribatzeko agintzea. Eskritura hori aldatua izan zen, hain justu ere aipatu notarioaren aurrean (protokolo-zenbakia: 1753), 2005eko uztailaren 4an, Vicente Zaragüeta Laffitte y D. Jose Luis Velaz Negueruela- emandako beste eskritura batez, zehazki, osagarria eta zuzenketak egitekoa zenaz aldatu zen eskritura hura.

Hirugarrena.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea.

Agindu honek administrazio-bidea amaitzen du; beraz, bere aurka aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkez dakioke Justizia eta Herri Administrazioko sailburuari, hilabeteko epean, agindua jakinarazten den egunaren biharamunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan, hil biko epean, agindua jakinarazten den egunaren biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko azaroaren 20a.

Justizia eta Herri Administrazioko sailburua,
IDOIA MENDIA CUEVA.

por D. Vicente Zaragüeta Laffitte y D. José Luis Velaz Negueruela, ante el Notario de Donostia-San Sebastián, D. Benito Corvo Román, número 31 de su protocolo, subsanada mediante Escritura Pública de complemento y subsanación de otras otorgada el 4 de julio de 2005 por D. Vicente Zaragüeta Laffitte y D. Jose Luis Velaz Negueruela ante el mismo notario, n.º 1753 de su protocolo.

Tercero.– Acordar la publicación de la presente Orden en el Boletín Oficial del País Vasco.

Contra la presente Orden, que agota la vía administrativa, cabrá interponer recurso potestativo de reposición ante esta Consejera de Justicia y Administración Pública, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su notificación, o recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su notificación.

En Vitoria-Gasteiz, a 20 de noviembre de 2009.

La Consejera de Justicia y Administración Pública,
IDOIA MENDIA CUEVA.